

# Psikologoaren aholkuak euskaraz aritzeko

Baliabide psikolinguistikoak eta teknika bereziak lantzen ditu Valentziako Unibertsitateko psikologo lan talde batek hizkuntza menpekotasuna saihesteko. Euskara eta katalana eguneroko egoeretan erosotasunez erabiltzen laguntzeko ikastaroak eskaintzen dituzte. Psikologia hizkuntzara ekarri dute eta hizkuntza gatazken aurrean izan ditzakegun portaerak aztertu dituzte.

SAIOA LABAKA



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA



Ezkerrean taldetan lanean eta eskuinean Ferran Suay psikologoa hizketan.

**HIZKUNTZA GATAZKAK** noiznahi gertatzen dira gurean. Euskal hiztunak bizipen, jokaera eta egoera deserosoak bidaide izaten ditu egunerokotasunean. Hamaika istorio, edonork. Lantokiko bileretan gaztelaniaz hitz egin behar izaten dute batzuek zortzi lankideetatik batek euskaraz ez dakielako. Haurrei euskaraz egiten dien gurasoak gaztelania darabil helduekin; ohitura kontuak. Mutil-lagunak euskara jakin ez, eta arraro sentitzen da hogeitaka urteko neska: gaztelaniazko makulurik gabe bospasei esaldi ozta-ozta bota ditzakeela ohartu da gerora. Trenen ordutegia jakin nahi duen euskaldunak gaztelaniaz bota dio galdera harrerako langileari, ez daki zergatik... Halako

egoerak azaldu zituzten Gemma Sangines psikologo valentziarraren ikastarora martxoaren 16an Eibarrera hurbildu ziren lagunek. Soziolinguistika Klusterrak Eralan ikerketa proiektuaren baitan antolatu zuen ikastaroa Eibarko Markeskoa Jauregian eta hizkuntza gatazkak eta hauen aurrean har ditzakegun portaerak aztertu zituzten bertan.

**Hizkuntza sumisioa, pasibotasuna...** TELP –Taller D’Espai Lingüistic Personal edo Norbanakoaren Hizkuntz Eremurako Tailerra– izena dute Valentziako Unibertsitateko Gemma Sangines eta Ferran Suay psikologoek antolatzen dituzten ikas-

taroek. Orain dela lau urte hasi ziren TELP ikastaroak antolatzen, 2003ko azaroan, hain zuzen ere. Tailer hauek ez dute maiztasun zehatzik izaten, Gemma Sangines eta Ferran Suay jasotzen dituzten eskaeren arabera izaten dira. Iaz, esaterako, hamabost ikastaro eman zituzten katalana hitz egiten den lurraldeetan eta Euskal Herrian. Jendeak nonahi katalanez hitz egin dezan laguntzeko, ari denean eroso sentitzen laguntzeko eta egiten duenean gerta litezkeen egoera desatseginak murrizten laguntzeko sorturiko ikastaroak dira. Hizkuntzaren ikuspegi psikologikotik planteatuta daude ikastaro hauek, eta esan bezala, arestian aipaturiko egoe-

## Bilbotik Valentziara

Gemma Sangines jaiotzez bilbotarra da, baina urte dezente darama Valentzian bizitzen. Euskara eta katalanaren espazio linguistikoak ezagutzen ditu. Baliabide psikolinguistikoen ildotik, euskararen eta katalanaren egoerak zeharo desberdinak direla begi bistakoa da, euskara eta gaztelaniaren arteko distantzia linguistiko nabarmena baita. "Egoera jakin batean katalanez ari bagara, gure solaskideak ulertuko duelakoan joka deza-kegu batzuetan, nahiz eta honek ez ezer ulertu. Egun euskararekin ezin da baliabide hori erabili", azaldu digu Sanginesek. Euskararen normalizazio prozesuarekin eta eskoletan jendeak euskara ikasten jarraitzen badu, hemendik hamar urtera, toki batzuetan behintzat, egoera hau hobetzeko aukera ikusten du psikologoak: "Euskal Herrian ez dela euskara hitz egiten esaten duen topiko hori ez da egia: esperimendu txiki bat eginez gero, gaztelaniara jo gabe denengana euskaraz zuzenduko bagina, berehala agertuko litzateke euskaldun berriren edo euskaldun zaharren bat inguruan, seguru".



Gemma Sangines eta Ferran Suay psikologo valentziarrak.

ra horietan zer esan eta egin jakiteko eta sentimenduak nola bideratu jakiteko baliabideak eskaintzen dituzte.

Eibarreko saioan Gemma Sangines psikologoak euren oinarri teorikoak azaldu zituen eta honekin batera hainbat praktika egitea proposatu zien ikastarora joan zirenei. Teoriari dago-kionez, hizkuntza-sumisioa ikasitako

jokaera bat dela azpimarratu zuen psikologo valentziarrak. Zenbait mekanismo sozial eta ikaste prozesuk jarrera pasiboa hartzera garamatzatela gaineratu zuen. Jarrera pasiboa izatea, esaterako, euskara euskaldunak nor diren badakigunean soilik erabiltzea eta gainerakoan gaztelaniaz hitz egitea da. Ohiturak ikasitako portaerak izaki,

## Lasarte-Orian praktikan jarri dituzte tailerrak

Pasa den abenduan Lasarte-Oriako (Gipuzkoa) Ttakun kultur elkartearekin batera 12 orduko ikastaroa antolatu zuten valentziarrak. Ttakun Lasarte-Orian euskararen eta euskal kulturaren normalizazioa sustatzen duen elkarte da. Ikastaroan parte hartu zuten 30 kidek esperientzia ontzat jo dutela jakinarazi digu Ttakun elkarteak. Bidean, ikastaroan aritu zirenak dagoeneko hasi omen dira bertan azaldutako teknikak erabiltzen, eta zenbait aldaketa eta aurrerapauso ikusi omen dituzte dagoeneko. Bestalde, Ttakun elkarteari gaia interesgarria iruditu zaionez, edukiak moldatu eta herriko euskaldunei eskaintzeko asmoa du. Pertsonen arteko harremanetan eragiteari buruzko ikuspegia Lasarten euskararen erabilera sustatzeko bide aproposa izan daitekeela pentsatzen dute, gainera.

Hizkuntza asertibitatea  
nork bere hizkuntza  
edozein egoeratan gustura  
erabiltzea da, bestea  
errespetatuz eta mindu  
gabe. Bidean, hizkuntza  
sumisioa gaintzeko  
kontzientzia linguistiko  
edukitzea ez dela aski dio  
Gemma Sanginesek

hauek alda daitezkeela ere adierazi zuen Sanginesek. Hizkuntza menpekotasuna saihesteko beste alternatiba bat ikas daitekeela ere defendatu zuen: asertibitatea. Hizkuntza asertibitatea nork bere hizkuntza edozein egoeratan gustura erabiltzea da, bestea errespetatuz eta mindu gabe. Bidean, hizkuntza sumisioa gaintzeko kontzientzia linguistiko edukitzea ez dela aski aipatu zuen psikologo valentziarrak. Beharrezkoa bada ere, kontzientzia eta portaerak independenteak direla azaldu zuen.

Ikastaro hauetan era guztietako egoerak aztertzekeo parada izaten da ariketa praktikoei esker. Era berean, espazio linguistikoak hobeto ezagutzeko ere baliagarriak dira. TELP tailerretako partehartzaileek bizi izandako esperientziak eta kezkek plazaratu egiten dituzte eta guztien artean gatazkak konpontzeko irtenbideak iradokitzen dituzte. Bestalde, hizkuntza gatazketako egoerak eta protagonisten jarrerak aztertu eta landu egiten dituzte antzeppen txiki batzuen bitartez. Hala, batzuk gatazkako protagonisten paperean sartzen dira eta gainontzekoek hauen erosotasun maila antzematen saiatzen dira gorputzaren erabilera komunikatiboan erreparatuz, besteak beste. ■

Babeslea: Bergarako Udala



Bergarako Udala,  
euskarazko komunikabideen alde